


2. Josu Naberan: *Toponimiaren ekarpena aitzin euskarari*



Josu Naberan AEKn jardun zuen 10 urtez. Gero itzulpen talde batean (Kalegana Itzulpen eta Ikerketa Taldea).

Duela 7 urte edo *Sugearen Iraultza* liburua idatzi zuen, euskal mitoari buruzkoa, gaur eguneko eredu alternatibo bat eraikitzen laguntzeko.

Antzinako Euskaldunen Egutegia, ilargi egutegia zelakoa zen azalduz, baita konstelazioen kontuak, egun izenen eta zenbakien esanahia eta halako kontuak bilduz argitaratu zuen orain 5 urte.

Ondoren *Hitzen Koba. Euskararen jatorria eta eraiketa* liburua eta *Hiztegi Etimologikoa* argitaratu du, bere euskararen jatorriari buruzko proposamena bildu duen liburua.

Mota ezberdinetako artikuluak idazten ditu, antropologiaz, toponimiaz, etab.

Ofizios itzultzailea da eta besteak beste Klasikoak Sailerako itzuli ditu ingelesetik (Hobbes, Hume..) eta grekotik (Herodoto, Tuzidides..). Hitzaldiak ere ematen ditu, bai Egutegiari buruz, bai Mitologiari buruz, eta abar.



1. TOPONIMIAREN EKARPENAK ETIMOLOGIAREN EREMUARI

Nik proposaturiko erro gehienak ezagun egingo zaizkio euskaldunari: AHO, IHI, GAR, SU, HIL, ERI, JO, ERIO(N), LO, BAT, BI, HIRU, LAU, BORO, (K)IDE, ETSE, (H)ATS, (H)ATZ, (H)OTS, ABA/AMA, EBA/EMA, EDU(N), UR, ERA, ALE, GOI, EGU, GUR, UK(AN), DOR(RE), ORD(O), OR, URR(U)I, AR, ARRE, ER(TZ), EGIN.

Beste erro batzuk, ordea, lexiko normaletik edo leku-izenetatik isolatuak, ezezagunagoak dira edo jada erabiltzen ez direnak: IZ, ZI, AIA, AUZ, ARA, ANU, LEA, KORO... Batez ere azken hauei emango diet arreta nire azalpenean.

Noiz sortu zen euskara? Edo, galdera zehatzagoa, noiz eta nola sortu zen euskararen katea mintzatua, ahoski bakarra ahoskatzetik bi edo hiru ahoski kateatzera? Mendebal Europako labar arte miragarria pintatu zuen gizakiak bazuen seguruenik hitzak kateatzeko gaitasuna. Zer da besterik hizkuntza katea irudiak elkarlotzea baino, arte lanean bezalatsu? “Izar” esatean, IZ (argiaren adierazpena) eta ARRE (nabarmenaren sentazioa) elkarlotzen ditu. Horra hor hizkuntza modernoaren sorrera. Arestian, onomatopeiez eta zeinu txit adierazgarriez baliatuko zen.

Adierazkortasunean fina izango zen, gorputz osoa erabiliz bere sentipenak adierazteko. Baina irudiak zizelatzen edo pintatzen hasi zenean, beste adierazpide batez baliatzen hasi zen: irudi bidezko adierazpena, adierazpen sinbolikoa.

Zelan eraiki zen euskara, eta zeintzuk izan ziren hastapeneko hitz erroak? Horretarako, herrien eta antzinako leinuen historian arakatu behar da (hala egiten dut liburuan, gizaki sapiensaren mugimenduei buruz gaur egun nagusi den hipotesiari jarraitzen diodala).

Horrela, euskararen erroekin batera, historia aurkezten da -edo “historiaurrea”, deitu nahi zaion moduan deitzen zaiola-, antropologian, arkeologian eta folklorea oinarrituta. Eta horri populazioen genetikaren ekarpenak gehitu behar zaizkio.

Joan den mendean Babel hartzen zen hizkuntza ezberdinen abiapuntutzat, baina bai arkeologiak (batez ere goi paleolitiko artearen aurkikuntzak), eta azken urteotan populazioen genetikak ere duela 50.000 urtetik honazko datu zehatzak ematen dizkigu: populazioen mugimenduak, talde ezberdinen kultura ezaugarriak, kultura ezberdinen arteko harremanak... Baina jende haien hizkuntzaz ez dago halako datu zuzenik. Leku-izenetan geratzen diren arrastoak aztertu behar.

Toponimia. Nire lanaren abiapuntua ere horixe izan da: mendebal Europako (arestiko gune paleolitikoko) lekuizenak jaso eta hortik ateratzen diren erro errepikakorrak isolatzea. Horri, jakina, toponimian agertu ezin diren erroak gehitu dizkiot zerrenda osatzeko.



Erroen taula. Hor doa euskararen erroei buruzko nire saioa, behin-behineko hipotesi gisara:

1. IZ/IZAN	21. ABA/AMA	34 OR	36 URRU(I)
2. GI, HI	22. ARA/AR	35 DOR/ORD	37 ARRE
3. ZI	23. EDU(N)		38 ER
4. HA, D(S)A, AI(A)	24. UR(A)		39 (A)GER
5. GAR/KAR	25. ANU		40 (E)GIN
6. SU	26. LEA		
7. AUZ/AZU	27. ALE		
8. IN/EI/KE	28. ELI		
9. IRA/IL, AN/EN	29. AL(A)		
10. DSO/JO	30 GOE/AGO		
11. LO/LOHI	31 GU		
12. BA(DA)	32 UKU/AKHA		
13. BI	33 KUR		
14. ILU			
15. LAU			
16. BUR(U)			
17. ATS(E)			
18. ATZ			
19. AHO/OTS			
20.ON/UNE/UTS			

Eta orain goazen erroak esplikatzen, eta batez ere ezezagunenak justifikatzen.

2. BIZITZAREN TRILOGIA

Lehenik eta behin “bizitzaren trilogia” deitzen dudana osatzen duten erroak daude: IZ / GIZ / ZI

2.1. IZ

IZ erroa euskara arkaikoaren zimendarri nagusienetako bat dugu, ZI homologoarekin batera. Izarren eta egunaren argia irudikatzeaz gain, *bizia* ondorioztatzen du, baita *izan* aditz nagusia ere. Badirudi existentzia-energia oro har adierazten duela: *izan, izaite, izadi, izaki...* Arrasto piloa utzi du mundu zaharrean.

Goi Andereetan, adibidez, hor ditugu Isis eta Ishtar. Biak dira ugalkortasunaren goi-andereak. Ishtarrez gain, leinu bereko Ishkur dago, euri eta trumoiaren jainkoa. Hona hemen IZ erroa daraman beste jainko bat, Istanu, hatiten eguzki jainkozkoa, euskara arkaikoko *iz-anu* osagaiak barne dituen, hots, “goiko argia” euskara modernoan.

a) Esanahia: argia, izatea

b) Adibideak: IZAN	*iz-an	(argia edo izaitea abian)
IZAKI	*iz-ekai; *izan-eiki	(bizi-ekaia duena; badena itxuraz)
IZAR	*iz-arre	(argi arrea, nabarra)
IZPI	*iz-ttipi	
ISLA(DA)	*iz-ira-ara	(argiak jotako gorputzaren soslaia)
IZTANTZ	*iz-antz	(istantza, egunsentia)
ITZARRI	*iz-arre-i(n)	(argitara esnatu, iratzartu)
GORPHITZ	(Saraitzu) *gorpu-iz	(bizia duen gorputza) ?



c) Eratorriak: DIZDIZ (iz erroari buruzko onomatopeia)
 DISTIRA *dizdiz-ira (dizdizaren ondorioa)
 ITZALI *itzal-i(n)
 ITZAL *iz-ara-el; (argi eremua gabetu; **el <- eri**)
GIZ- *gi-iz; *gu-iz; *gu-zi (**haragi biziduna; gu biziok;**
Kaukasoko lazieraz eta migrelieraz GOTSI/KODSI,
KOTSI)

GIZ-en eratorriak: GIZA-, GIZON, GIZAKI, GIZELI, GIZARTE, GIZELAN....

HITZ *aho-iz (**ahotiko energia; bi bokal**
batzerakoan, **hasperenduna sortu da)**
 ESAN *hitz-an (egin hitz)
 ISIL *hitz-il (hitz motelekoa)

d) Toponimia: Azkuek “iz” ura dela dio, baina horrela bada, askotan ZI erroaren alderanzketa delako izan daiteke: IZOURT (urmaela), IZORIA erreka, ISTORA erreka... Beste batzuetan, “iz” ITSAS-en apokopea da: IZPAZTER, IZARO... IZ eta ZI erroen toponimia oso ugaria da Euskal Herritik kanpo ere.

Theo Vennemann-en esanetan IS/EIS erroa “Noruegatik Italiara eta Espainiatik Errusiako paraje urrunetaraino hedatzen da”. Bestalde hor da ES ere (ESA, ESLA, EZKA, EZTI...) urari eta ibaiari erreferentzia egiten diotenak.

2.2. ZI

a) Esanahia: ur-korrontea, bizi-korrontea, energia. Txinoz, *chi* energia da.

b) Adibideak: BIZI *bi-zi-(an); *bi-zi-in; *biz-in (pultsuari erreferentzia)
 ZIO *zi-o (energiaren joan-etorria edo lekua)
 ZIMA *zi-ama (uren sorburua)
 LOHI *lo-zi, *lo-gi (ur geldia)
 ZEN *(bi)zi-en (bizi izan dena, defuntua)
 SENBE/SEME *zen-behe (zenaren oinordekoa)
 SENIDE *sen-ide (zenaren kidea)
 ZIN *zen-in (zenaren izena aipatu)
 ZER(A) *zi-era
 ZITU *zi-tuj; zi-itu (kalitatezko bihia; energia bildua)
 HAZI(A) *gai-zi(tu) (zitu izateko gai)

c) Eratorriak: Esan bezala, batzuetan, ZI/IZ alderanzketa fonetiko gertatzen da:

IZERDI *zi-erdi (ura irten)
 IZOTZ *zi-hotz (ur hotza)
 ESNE *zi-ene; zi-eme
 ITSASO *zi-asso (grekoz, “thalassa”)
 ISURI *zi-uri-in (jario ugaria eragin)

Beste batzuetan, ZI erroaren homologia gertatzen da:

- izenetan: zitu, gezi, zital, ihi, zubi eta beste batzuen apokopea da
- toponimian: “Zigoitia” Zuia-goitia da, adibidez



c) Toponimiako adibideak: ZI / THI / THE / SI

EUSKAL HERRIA

ZIORRAGA	(Araba) *zi-urru-aga; *zidor-aga
ZIBITZE	(BN; Biduze eta honen adar artean)
ZIBOZE	(Zuberoan, goi-Uhaitzandiren bi adarren artean)
ZIHIGA	(Zub.Uhaitzandi adar buruan)
XIBERTA	(EH. L. Atturri hegoaldeko kostan)
JUTSI	(BN. oihan barrenean)
NABARZI	(Biarno, ibaiertz)
GARAZI	(Donibane- BN)

PIRINIOAK

ISIL	
ISOBE	
CHIOULA	(col de; Bezins-Garraoux)
SIGNAC	
SINZOS	
SIRADAN	
SIROS	
OUZIOUS	(Col de)
MAUVEZIN	
MALVEZIE	
CERISE	(urjauzia)
CIER-DE-LUCHON	
CIER-DE-RIVIERE	
CIERP	(500 m)
<u>CINCA</u>	
<u>CINQUETA</u>	
CIRÈS	(Chapelle)
SIA	(Pout de)

EBRO

OSIA	
LANCIEGO	(Lantziego)
ELTZIEGO	
INDUZI	(Aragon ibaiaren adarra)
DULANTZI	
<u>ZIDAKOS</u>	
ZIKUJANO	
ZIMENTU	
SILANES	
SIRESA	
OZIO	



MENDEBALDEA

ARTZINIEGA

CIELLA

BEZI (**Biz.**; **Barbadun buruan**)

SIA (**Portillo de la; Kant**)

SELLA (**Río de, Ast**)

SIL (**Leon**)

SILVÓN (Navia)

(Mena.

(**Biz**)
BU)

Dena den, eremu horretatik harago ere ugari ageri da erro hori: Annecy (Suitza), Tiber (Erroma), Tiblis (Georgia), eta abar.

Kaukaso aldean nahiz Mesopotamian ZI / TI / SI / CHI erroak garrantzia handia dauka. Sumerieraz, ZI hitzak "ura" esan nahi du.

Berbereen eremuetan ere *Ziz* bailara eta erreka handia dago; *Isli* eta *Tislit* lakuak, *Islane* (lakuon arteko gunea)....

2.3. GI eta LI

ZI erroaren kontrapuntuak GI eta LI dira.

a) Esanahia: GI: energia haragitua

b) Adibideak: HARAGI	*hao-ara-gi	(haragiaren taxuera konbexua?)
GIHAR	*gi-arre	(haragi berezia, trinkoa..)
GHIA/GIA	*gi-ara	(larruzal azpiko mintza)
GIBEL	*gi-bel	(haragi beltza)
GINGIL	*gi-dingil	(dingilizka dagoen haragia)
GIZEN	*gi-zi-en; *giza-en	(gorputzean ur gehiegi)
GILTZURRUN/GILTZURRIN	*gi-beltz-urrui-n	(odola iragazten duen organoa)

a) Esanahia: LI: lore eta landareen hizkia.

b) Adibideak: LILI	*li-ih	
LIHO	*li-eho	(ehuna ehotzeko landarea)
LIRIN	*li-irin	(fruta umoa, heldua, zoria)
OLIO	*li-orio	(likidoa darion landarea; lat. Oleum)
LOTU	*li-o-tu	(lianarekin eta beste landarekiekin)
LIME	*li-mehe	(landareen gai likitsua)
LIMURI	*lime-uri	(hezea, labaina, irristakorra)
LIKIN	*li-ekai-n	(landare-hondakin biskatsua)
LIKA/LIGA	*likin-ira	(likido biskatsuzko gaia)
LIKITS	*lika-hits	(lizuna, zikina)
BELAR	*behe-li-aria; behe-li-arre	(beheko landareki mota; sarria)
LIBURU	*li-buru	(landaretik ateratako alea)

Hemen LORE hitzaren kasua daukagu. Romanistek *flos*, *florem* jartzen dute sorburutzat: Baina kontua da **flos** horren jatorria *bolo-ore* dela, hizkuntzalariek diotenez. Beharbada euskarazko **lore** *bolo-oretik* zuzenean dator, arraroa baita kontzeptu garrantzitsu hori izendatzeko hitzik ez edukitzea erromatarrak etorri arte. Nik uste dut hitz askorekin gertatzen dela hori: euskarak eta latinak iturri beretik jasotzea, baina euskarak latinak baino askoz lehenago, jakina.

Baliteke, baita, LORE *li-ore (landareak ematen duen ore) izatea. Orduan, *lore* eta *florem* jatorri ezberdineko sinonimoak lirateke.



Kontuan hartzekoa da “loraune” iberieraz idatzitako euskarazko testu batean agertu dela, 2 metro t’erdiko mosaiko batean, Iruñea ondoko Andelos hiri zaharrean. Testua K.a. 150 urtekoa da eta honela dio: “likine abuloraune ekien bilbiliars”. Likine bilbilistarrak egindako mortairuzko loraunea.

3. HARRIAREN TEKNOLOGIA

AIA (harria, peña, roca), HAITZ, THAI / TAILA batetik, eta GAR/KAR, HARRI, SU, SUKARRI bestetik, aspaidiko hitzak ditugula ematen du.

Ezaguna da harria lantzeko teknika diferenteak erabili zituztela, eta euskarak horren arrastoa gorde dezake.

Antzinako eran (Clactonien teknika) harria klakada gogor batez zatituta hasten ziren lanean; geroago thai-thai kolpe xehez lantzen ikasi zuten (Tayacien teknika). KLAKE eta THAI erdi-onomatopeiak adierazten dute harriaren teknologia paleolitikoa. Gero, neolitoan, harria leunduz ateratzen zituzten aizkorak eta abar.

3.1. AIA

HAITZ	*aia-tz	(aia handia)
ASTILA	*haitz-t(a)ila	(<i>hasta</i> latinetik datorrela diotena)
AIHOTZ	*haitz-aho-tz	(haitz tresna zorrotza)
AIZTO	*aiotz-to	(aihotz txikia)
AITZUR/HAITZUR	*aizto-urra	(lurra urratzeko aiztoa)
HAIZTURJAIZTUR	*aizto-tur	(buru (tur) bati lotutako aiztoa)
AIZKORA/AIZKORA	*aizto-ora	(oratzeko lekua duen aiztoa)
EKAI/GAI	*eko-ai(a)	(lehengaia, “aia” egokia)
EKOITZI	*ekai-oz-in	(ekairi kalitate handiagoa eman)
GAUZA	*gai-auz-a	(munta handiko gaia)
THAI	*ta-in	(tarte, etena, marra, epea)
TAI GABE	*thai-gabe	(etenik gabe)
TAIA	*thai-a	(epea markatzen duen epaia (tarja) (marra bidezko errezibo mota)
ATHAL/ATAL	*taia-ale	(taiaren alde bata)
ITUN	*taia-une; zin-	(zin egiteko lekua eta ondorioa)
TAILA	une *thai-ila	(thai-thai teknikaren ekoizpena)

Atzizkiak: TAILA-> -tila/-ila, -tasun
EKAI -> -ki, -zki, -kila, -kin

3.2. SU / SÜ

*ixu: antzinako onomatopeia

UXATU/IZUTU	*ixu	(ehizan egiteko lehen sistema)
EIXA	*in-uxa	(uxa bidezko ehiza)
EHIZA	*in-eixa	
SUKARRI	*su-harri	(sua egiteko harri egokia)
LUSUIL/SUIL	*lur-su-ira	(suaren ondorioz egindako lurrezko ontzia)
EGOSI	*eko-su-i(n)	(janaria sutan egokitu)
SUKAR	*musu-kar	(musuan bero)
LAMA	*su-ama	(su printzipala)
IZIO	*in-su-zio	(sua piztea helburu)
TXINGAR	*izio-gar	(txingarra ez zen amatatu behar)



SUSTA(TU)	*su-azu-(tu)	(sua izioarazi)
KHE/KE	*ekai-e	ekairik ez duen gauza)
XEHE, MEHE	*xe-ekai	(ekai xehea)
HAIZE	*gai-xehe	(ekai xehea)

3.3. GAR / KAR

GAR / KAR: garra sortzen duen kare-harria eta suak egindako garra.

KARE	*kar-hare	(kar hondarra)
ARDAGAI	*gar-ekai	(garra eragiteko materiala)
TXINGAR	*izio-gar	(garra iziotzeko)
HARRI	*kar-ira	(KAR harkaitzetik eratorria)
HARKAITZ	*kar-hait; *harri-gaitz	
PEGAR	*behe-gar	
KAZOLA	*kar-zola	(sugarrarekin zerikusi duten forma ezberdinetako lusuilak)

4. MINTZAKATEA

Noiz sortu ote zen euskararen kate mintzatua, hau da, berba bi lotzetik esaldirako joera? Horretarako adizki eta aditzondoaz baliatu behar zen, espazio-denboran kokatuta sentimenduak adierazi ahal izateko.

Gizaki jakintsuak, teknologian eta Goi Paleolitoko labar arte bikainean halako urratsak eman ahal, berbazko adierazkortasunean ere urrats handiak emango zituela pentsatzekoa da.

Euskarari, aditz laguntzailea sortu aurretik, aditza eta substantiboa biak batera ematen dira: horrela, *ordain*, *eten*, *jan*, *itxaron*, *ehun*, *igaro*, hil hitzek IN EN AN ON UN O IL aldizkarietariko bat daramate. Gauza bera gertatuko da *batu*, *edun*, *ukan* eta *egin* hitzekin ere. Egilea eta egina ezin lotuago ageri dira. Adizki horietatik guztietatik IN aditza da gehien erabilia, dela hitzaren hasieran, tartean nahiz bukaeran.

Gero, batetik, *-en*, *-an* aditz atzizkiek jatorria eta presentea esan nahi dute, hurrenez hurren. Guk iragana eta etorkizuna deitzen diogunari, haiek, batetik, jatorria edo karia (*-en*); bestetik, gertatzen ari dena (*-an*); eta, azkenez, asmoa, desira edo joera (*ai*) hizkiaren bidez irudikatzen zuten, denbora eta espazioa uztartuz. Horrela, AILEDI (baldintza optatiboak) norbere aurrean, aitzinean, ageri denari buruzko desioa adierazten du, agian NAHI aditzean bezala Oстера, (*oi*) hizkiak nahigabea edo ustekabea adierazten du.

Mintzakatea eratzeko beste hizki garrantzitsu batzuk: (*ira*) eratorria dela adierazteko; (*ei*) gertagarria dela adierazteko; (*ide*) antzekoa dela adierazteko.

Hona hemen, goian esandakoaren adibide batzuk:



IN	(ekintza adierazten duen aditz nagusia)
INDAR	*in-dart
INAUSI	*in-hautsi
IHAUSI	*in-adausi
INETAZI	*in-jela-zi
EI	*e-i(n) (izan daiteke; omen)
EIKI	*ei-ki (daitekeena, gehigarria; gr., <i>eikos</i>)
EITE	*ei-te (antza (gr., <i>eideos</i>))
EITZ	*ei-zi (energia modukoren bat (duena);zuhaitz ororentzat hizki generikoa)
AI	
AITZI	*aitzi-in; *ai-zio-in (aurrekoari aurpegi eman)
ATZE	*aitzi-e (aurea ez dena)
AITZIN.	*ai-zi-ide (izakien aurreko aldea)
NAHI	(baliteke <i>ai</i> osagaia edukitzea)
EAN/EN	*en-an (nondik datorrena?)
ENDA	*en-ara (nongo lurraldekoa?)
JENDE	*enda-ide (endakideak)
IRA	*ei-an (noizbaiteko zer edo zeren eratorria)
IRAGAN	*ira-igan (aldapa igan ondokoa)
IREKI	*ira-eiki-in (iraganari aukera -EIKI- eman)
IDE/ITE	*ida-e; *eite (eratorriaren alde bata; grekoz, <i>ise</i>)
KIDE	*ekai-ide; *koro-ide, *gu-ide
ERE	*ide-en; *en-ide (hura barne)
ETA	*ide-da (grekoz, <i>eti</i> ; lat., <i>item</i>)

5. PAISAIA

Paisaia askotan aldatu da milurtekoetan zehar. Horrela, duela 35.000 urte azken glaziazioa hasi zenean (Würm izoztaldia) gizaki sapensaren hainbat talde agertu zen gure parajeetan eta labar-arte ederra utzi ziguten geroztik. Aldiz, duela 12 mila urte inguru klimak berriro epelerantz jo zuenean, izeia eta lerra, pinua eta urkia miragarriro basten ikusi zituzten halakorik inoiz ikusi gabeko begiek. Eta den-dena aldatu zen haientzat. Orain ibaiertzetara jo behar izan zuten. Paisaiako elementu berriak (zuhaitzak, oihana, landareak..) eta paisaia bera (goruneak, bailarak, montorrak...) zehazki definitzeko hitzak behar zituzten. Animalia handien atzetik iparrerantz eta ekialderantz mugitu ziren euskaldunek beren hitzak barreiatu zituzten Eurasian zehar.

Aldi berean, Mediterraneoko penintsuletatik zehar hegoaldeko jendea etorri zitzaigun: lehenengo, mesolitoan, Gafsa kulturako jendea Ipar Afrikatik, eta geroago Eki Europako nekazariak. Haiek ere beren berba elea eta ekarri zuten gurera. Horrela, geruza ezberdinez osatutako euskara aberatsa nagusitu zen European. Adibidez, gorunean dagoen etxea izendatzeko ETXAUZ, ETXABURU, ETXANO eta ETXEGARAI dauzkagu gutxienez (*auz, buru, ano, gol/gara* erroekin).

Jarraian, paisaia definitzeko (toponimian) ageri diren erroetara mugatuz, ezezagunenak eta seguruenik antzinakoenak aztertuko ditut.

5.1. AUZ

Michel Morvan hizkuntzalari frantziarrak zera dio: *Il exist en zone basque un vieil oronyme *auz...* (Noms de lieux du Pays Basque et de Gascogne). Berak dio *haitz*-arekin zerikusitu izan dezakeela agian. Nire ustez, gorunea adierazten du.



Hona hemen Morvanek dakartzan toponimoak:

- etxeak (maison nobles): ETXAUZ (Baigorri), AUZKU (Occos, Irulegi)
- mendiak: ICHTAUZ (Banka), HAUZA/AUTZA (mugaldeko mendia, 1.036 m)
- herriak: HAUX, ANHAUX, AUCH.

Pirinioaz iparraldera AUZAT ere badugu (le toit de l'Ariège). Pirinioaz hegoaldera AUZ gutxi dira, horrela, sustraia bere osotasunean hartuta: ZARAUTZ, AUTZAGANE (mendatea), AUZTO (Zornotza eta Durango arteko auzoa gorunean)...

Baina AUZ erroaren higadurak dira, hori da nire hipotesia, OZ/OS, ZO/SO, baita -TZU eta -TZ atzizkiak ere. Horrela AUZ erroaren familia honako hau litzateke:

AUZ; OZ(O), (O)ZO; eta agian -TZO, -TZU, -TZ atzizkiak

Atzizkiak

-tzu atzizkiari dagokionez, batzuetan -ZU fitonomikoaren aldaera da, baina beste batzuetan AUZ erro horren eratorria (Arratzu, Gontzu, Alzustea, Alzuza, Bergantzu... denok goruneetan).

-tzo (Altzo eta abar)

-tz (Andutz eta abar). Hori toponimoetan.

Izen arruntetan, berriz: batzu, baltzu, zantzu, zentzu...; multzo...; motz, gorotz...

Toponimoak: OZ/OS, ZO/SO

Astazou (pic) (Mend. Pir)

ODOZ

OZON

ASTE (Mend. Pir)

Asté (pic d') (Mend. Pir)

Astos (valle de) (Mend. Pir)

Mazou (La) (Mend. Pir)

MAZOUAU (pic eta h)

Ouzious (Col de)

UZOS

ALLOZ (Ebro ing.)

La Mazorra (Pto., Ebro aldean)

TOZO (Ebro aldean)

LEOZ

Oza (valle de)

OZANA

OZEKA (Izalde / Zaldu sorburu goiengan)

OZANES

MUNIOZGUREN (MARK, gorunean)

OZAMIZ (Gautegez)

OZOLLO (Gautegez)

Guriezo (Alto de) -548- Kant.

Mazo (Peña eta Loma del) (m) (Karr)

ANZO (Kadagua goiengan) BU

ZOLLO (Nerbioi goiengan)

OS eta **SO** barne duten toponimoak milaka dira, inguru zabalean. Herri askok du SO-hasiera (Sopela, Sodupe, Sobrarbe, Soria, Somorrostro...), baina bi adibide adierazgarri jartzearen, hor dira OSMA eta SOMO.

OSMAren izen zaharra UXAMA da. Horren aurrekoa *AUZAMA izan daiteke (*auz-ama), euskaratik interpreta daitekeena.

SOMO ere toponimo ugaria da mendebaldean goruneak adierazteko. Latinez "summo" ematen du, baina horrek ez du esan nahi SOMO latinetik datorrenik. Izan ere, *so-boro izan daiteke jatorrizkoa, hau da, *auz-boro (gorune-burua).



Izatez, AUZ erroaren familia askoz zabalagoa izan daiteke, OZO-->OTO, AUZ-TO-->ASTO eta halako bilakaerekin. Hortik OTOIO mendia, ASTOBITZA *auz-to-bi-tza (bi bailaratara ematen duen gurunetxo)...

Hitz arruntetan, AUZO bera da argiena, hiriguneak montorretan eraikitzen ziren lekukoa (gero "Agerrretan" eta azkenez "Bailaretan" eraiki ziren). Horrez gain, honako hauek gehi daitezke:

AUZO	*auz-o	(gorunean dagoena)
AUZI	*auz-i(n)	(gora jo)
UZTAI	*auz-thai	
UZTARRI/BUZTARRI	*(buru)-uztai-in	
OSABA	*auz-aba	(aba-ren parekoa)
ZOLI	*auz-adi	
ZORI	*auz-or-i	
ZOHAR(GI)	*auz-argi	(ortzetiko argia)
GAUZA/KAUSA	*gai-auz(a)	(gai garrantzitsua)

Eta horiez gain, OTO, OTE, OSTE, HOSTO, OTOI, OSPE, eta agian ZUT, ZUR, USTE...; ALTO hitz erromantzea ere AUZzen familiakoa litzateke.

AUZ erroaren esanahiak

- altua
- parekoa
- kalitatezkoa

Jatorrizko esanahia lehenengoa dela ematen du: altuera, eta AUZOA, berriz, altueran dagoena.

Hitz batzuetan (MOTZ, *boro-tz, buru edo enbor antzekoa) "parekoa" dela dirudi. Grekoak ere horrela jaso du os=berdina.

Beste hitz batzuetan, altuera hori kalitateari dagokio. Altuera fisikotik bikaintasunerako urratsa eman da, "alto" hitzean bezala.

Oharra: SO batzuek, SUB latinezko familiakoak, "azpia, azpikoa" esan nahi dute (adibidez, SOTO, latinezko *subtus* jatorrikoa).

AUZ erroaren kontrapuntua **AZUA** toponimoa dela ematen du, "bailara" esanahiarekin, *valle de Asua* izendapenak adierazten duenez. Bestalde, Bizkaian, Gipuzkoan (Mutrikun, Eibarren...) nahiz Araban ageri da AZUA/ASUA, hala nola AZUBE/ASUBE, AZULA, AZUELA, AZAOLA, AZARAIN...

AZU(A) erroak **-aza-**, **-azu-**, **-za-** duten hainbat hitz dezifra dezake (azal, azpi, aza, azoka, asun...). Era berean, -TZA/-TXA/-TA atzizkiak bailarako ugaritasunaren islada dira. Baina orain goruneekin gabiltzanez, goazen Etxabururen BURU aztertzerara.

5.2. ANU

Bada beste erro bat toponimian gorunea adierazten duena ANO/ANU/AÑU... Hitz amaieran nahiz hasieran aurki daiteke: Etxano (*etxe-ano, goruneko etxea), Arano (*ara-ano, goruneko bailara), Anboto (*anu-boro-to, goruneko tontor handia),...

Sumeria aldean "zerua" esan nahi du, eta grekoak ere ANA jaso du altu, altuera adierazteko. Beharbada euskarak Mediterraneo aldetik jasotakoa da, euskarazko hitz gutxi



eman baitu. Aldiz, toponimian nahiko ugaria da Alpeetan, Pirinioetan eta beste mendigune batzuetan. Hona hemen anu/ano erroa daramaten toponimoen lagin bat:

Alpe ingurua: Ebro ingurua:

Anney (goruneko lakua)
ANNEMASSE (Arve eta Rhon bilg ond.)
ANNONAY (mailoa)
ANNOT (mendialdean)
ANNONAY (Rhône ertz, goiengan)

Ebro ingurua:

ANUZITA
Anyuela (m)
AÑASTRO
AÑÓN

Frantzia:

ANNEZAY (goi lautadako zelaia)
ANNEOT
ANUS
ANNOUX
Annain
ANNAY
ANNOIX

Aragoe:

Anayet (ibon de)
ANCILES
ANETO (herria eta mendia)
ANCILLO
Anievas (eskualdea)
AÑES

Euskal Herria:

AÑUA
AÑAO (GARAI)-574 m.
AÑABUSTI (basoa)
AÑETU (Urdaibaiko mendia)

Anube, unbe, anbe toponimoak ere *anu-behe izan daitezke; *anda* (*anu-ara) eta horren eratorriak (Andara, Andraka...); *haran* hitza arano-tik etor daiteke (*ara-ano, goi bailara).

Erro honetatik datorren beste hitz bat *anho/anoi/anoa* da seguruenik, mendirako jaki-arrazioa; eta *anoka* (ano zorroa). Eta beste berba garrantzitsu batzuk ere izan daitezke jatorri berekoak:

ANAIA/ANAHE/ANAE (*anu-ahaide), NAGUSI (*anu-gusu-i(ra), « arbasoen ondorengoa »); ANDERA(UREN)/ANDRA/ANDERE/ANDRE (*anu-ara-guren, *anu-ara-jaone edo holakoren bat, « goi lurraldeko pertsona edo izaki sakratua » adieraziz.

Beharbada ALTO erromantzeak ere *anu-to (gorune handia) du jatorritzat.

ANUren kontrapuntua LEA da, « ibarra, laugunea » esanahiarekin. Ez da erraza erro hori toponimoetan isolatzea, LEA ibarreko errekaen eta halako kasu batzuetan salbu. LEABURU *leaburu izan daiteke. Baina sarritan *lea* erroa LA-, LE-, EL- hizkiekin hasten edo bukatzen diren izenetan dagoela dirudi. Hona hemen adibide batzuk:

GALEA, *gara-lea
GOBELA, *goe-behe-lea
LEIOA, *lea-igoa
LAMIAKO, *lea-bi-ago
LABOA, *lea-boroa
LEMOIZ, *lea-boro-iz

LEANIZ, *lea-anu-iz
ELKORO, *lea-koro
ELGOIBAR, *elkoro-ibar, edo *lea-goi-ibar
LAGA, *lea-ga(ra)
LEHETE/LETE, *lea-ate

5.3. KORO

Leku-izenetan gorune biribilkara edo biribilaren kontzeptua oro har izendatzeko beste osagai bat *koro* da.

Izen arruntetan ere aurkitzen dugu: koroa (lat., *corona*; grekoak *kuros* jaso zuen Kretako hizkuntzatik, « gaiak guztitara » adierazteko.), ahokoro (aho sabaia), labekoro (labearren



ganga) koropilo (*koro-bil-o), gorotz/korotz (*koro-tz); baita GOR/KOR duten hainbat berbatan: gorputz (*koro-buru-tz), korta (*koro-ta), mokor (*boro-koro)...

Nire ustez, KORO euskarak Mediterraneo aldetik jaso zuen, baina *zi*, *behe*, *oina*, *une* eta halako euskal osagai argiekin bilduta ageri da Europa mendebaldeko toponimian du: hor ditugu Gorozieta, Gorosabel, Gordoxola, Gorbeia, Aizkorbe...

***koro-zi (ibaiaren bihurtzea, meandroa):**

GOROZIKA
GOROSIBI
CROCE (erreka ertzean) (Montagne Limosin)
CRONZAC (DL) (Dordogne ertz, meandroan)
CROUSSILLAC (erreka goienera)
LACROUCILLE
CROCE (erreka ertzean) (Montagne Limosin)

***koro-do, gordo (koro handia):**

GORDOXOLA
GORDONIZ
GORDIZ (erreka ond, meandroan)
GOURDON (Bléou eta Germaine ibaien bilgunean)
GOURDON (erreka sorburuan)
Gourdon (ibaia)
PÉRIGORG

***koro-behe**

GORBEIA
GOURBÉRA (erreken sorb, gorunea)
CORBERA (Pas ertz)

***koro-oina, koro-une**

COURGNAC
CORGNAC (Tardoire ertz)
COGNAC (Charente ertz)
CORIGNAC (Livenne ertz)
A CORUÑA
CORUÑO (COROÑU)

***koro-ino**

Goroño (MUX. malda pikea)
Goroño (DUR, m)-600-

***koro-bi**

CORBIAC (Caudau ertz, meandro ond.)
CORBIE (Somme meandroan)
COROMINA (Pir.)

***koro-lea; lea-koro**

GORLIZ
ELKORO

5.4. DORRE

Dorre oso ezaguna da euskal hiztegian, eta, mailegua bada ere, aspaldikoa ematen du. Erro honen aldagaiak DOR/TOR, DUR/TUR, TRO/TRU dira behintzat. Horien lekuko dira *sudur*, *mutur*, *zidor*, *dorpe*, *tontor*, *troka*, *gotor*, *zoztor*, *troko/tokor*, *dortoka*, *torloju*, *trumil*. etab.

Toponimian hedadura handia du. Ipar aldean hasi Dordoinatik eta Tourmaterra, Torino ahaztu gabe, milaka izango dira. Hemen Pirinioetatik Galiziarainoko lagin bat ikus daiteke.

Lexikoan bezalaxe, leku-izenetan ere euskal osagaiekin bilduta aurkitzen da ekialdetik mendebaldera: ano/ana, ino, angu, (l)eta, (i)kiz, ara, azo, aga, (t)za, bi, bina... eta halakoekin lotuta dago. Beraz, latina baino askoz lehenagokoa izanez, ez da batere zientifikoa "dorrek" latinesko "turris" duela sorburu.

DORRIA (Cat., mendian)
Ladorre (pto de)
LLADORRA
Andorre (m.)
Doroño (m)
DORREAGA

DURBAN
DURRO
CABADUR
Durban (pic)
DURANGO
DURIKIZ (IBL, goieneko larrean)



ANDORTEPE
Aldorre (ERR, m)
Dorletako Andra Mari (erm)
DORNA (LU)

DURANA Araba)

TOR (Girona)
TORN (EL)
TORRE
TORÁ
TORDÈRES
TORN (EL)
TORLA –1033 m- (eta pico)
Litor (cirq)
Citoria
TORISU (mendian)
TORMANTOS
TORME
TORMS
Tornos (los) mendatea
TORRE
Vitorquia
Tordias –965- (Kant.)
Tornos (Alto de los) (1270)
TORCOLLANO
TORANZO (San VICENTE de) (Pas ertz)
TORANZO (Deva goianean)
TORICES (Deva goianean)
Tiatordos –1951-
TORAZO

TORCE
TORMALEO
TORGA (Ibias)
TORAYO (Ganestaza goientxoan)
TORAZO (Sella goien)
TORIEZO (Ricabo)
Montorra (MUX. errek sorb)
TORREBURU (ZOR, baserria eta mendia-
320-)
Torridu (LAR, mendialdea)
TORTURA (Kuartango)

Turbias (megalit)
Turgulla (pic de)
GUTUR
TURISO
TURRUNCÚN
Turza
Turza (m)
SANTURTZI
Turbina (As)
TURIANO (As) (Deva ertz, bilg)
TURANZAS (Cerezo)

DORREren kontrapuntua **ORDO** da (ordoki, ordeka), agian DOR/ORD hitz jokoz sortua. Batak gailurra eta besteak goruneko laugunea adierazten dutelarik. Horrela, *Ordunte* dezifratzeko ez dago Ortuño erregearengana jo beharrik, ORDUNTE *ordo-uneate izan daitekeelako. Ezta *Durango* dezifratzeko “Duranco” delako pertsona izenera jo beharrik, DURANGO *dur-ango edo *dur-arango izan baitaiteke, gailur arteko haran (estua).

5.5. BURU

Erro hau, AUZ ez bezala, oso ezaguna da. Hona badakart, zein familia ugaria den erakusteko da.

Hasiera *bor-bor* onomatopeian izan dezake, mendien jatorri bolkanikoa adieraziz. Hortik *boro*, *buru* eta abar luze hau:

BORO/BORO/BOA; BORDA
MORO/BOLO/MOR-MOL-BOL-; MOTA/MOTZ
BURU/MURU/MUL-; MEN/PEN; MANU MUNA/MUN/MON/MUN; MUGA
BUIA/PUIA/PUI/PIN/MIN
PIKO/PIKA/-IKA atzizkia

Toponimiara mugatuz, BURU eta beronen enborrak arrakastatsu hedatu ziren Europan eta Mediterraneoan zehar. Begira, adibidez, BURU-BEHE erroak (buru/boroa/boa/bao/bol-



/bul-/bur-/mur-...), *anu*, *une*, *aho* eta beste osagai batzuen laguntzarekin sortzen dituen hitzak:

buru-une, buru-a(ra) -> muna	boa-asso -> baso
boa-anu-ate -> montem (lat), monte	buru-en -> men, men-/pen-, mendi, pendiente
buru-ino -> muino, moignon (fr), muñón, buño	mendi-ate -> mendate
buru-aga -> muga, mug-	pen-(ira)-aia -> peña (gazt), peyre (fr)
buruaia -> puia, puy, puig, pujol	buru-e -> behe
boa-on; abo-on -> bon, bueno, bonne	behe-aiara -> bailara, vallée (fr), vallis (lat), valle
boa-aho -> bao	behe-ase-ara -> basa
boaalda -> balda	buru-asso --> baso
pui-anu -> pinu, pinus (lat), pino	behe-uhara -> vega...
pui-ike -> pike, pique, pic (fr), pico	
menanu -> manu, man-, ban-, pan-	

Mota honetako eraiketak dituzten hainbat toponimo... Orografiaren ikuspegi zientifikoaren aurrean gaude: mendia (*buru-en-ida) tontorraren higadurak osatutako aldaia dugu, eta abar.

Horrela, milaka toponimo europar dezifra daitezke, oraindik dezifratugabetzat jotzen diren Kantabriako eta Asturiaskoak barne. Hona hemen adibide batzuk:

a) BORO/BURU osagai soilekoak:

- **E.H.:** Arnaburu, Boroa, Aiboa, Amoroto, Murueta, Morga, Murgia, Arboliz, Aramotz
- **Perigord-Dordogne:** Bournas, Brouzac, La Borie, les Bories, Bourboule
- **Guyena:** Les Bories, Bourdeilles, Bourgnac, Moute, Mothe,, Mourgues, Morgon
- **Lot-Céléé:** Bourlens, Bourbou, Bourrou, Boulegan, La Moute, Moureau
- **Lot-Garona:** Brouniquel, Broglie
- **Alpe:** Brou, Bormida, Enbroun, Maure, Maures
- **Charente-Girond:** Broue, Brouage, Pilboreau, Moron, Bourie,, Les Bouries, Bourras
- **Auxerre:** Brosse, Moulot
- **Yonne:** Bourrelie, Montbrun, , Borme
- **Nièvre:** Bordes, Brounie, La Motte, Morion, Morvan
- **Allier-Chers:** Bourré, Bourbince, Bourgogne
- **Seine:** Boulou, Motte, Limours, Morin, Nemours
- **Breizh:** Mauron, Mortain, Armor, Morgat, Bourbrine
- **Land-Biarno:** Brocas, Brosse, Brouard, Bourdalat, Abron, Burgaronne, Moulon, Moumour
- **E-Pir.:** Borgonyá, Borgoña, Bruñola, Saburo (Iakua), Burro, Burch, Burgantó, Boulan,
- Boratuna (mendizerra)
- **M-Pir.:** Marboré (mendia), Broca, Bruges, Momeres, Nabos, Broucan
- **Aragoë:** Sobordan, Borja, Quimboa, Bono, Moro, Bolatica, Bolave
- **Ebro:** Bordon (mendizerra), Borau, Borcos, Arboro, Bordoniz, Murchante, Cambrones,
- **Nerbioi-Pas:** Labor, Borleña, Mortera, Muriedas, Burceña, Burbustu, Somo, Arbulu, Bollacín
- **Beseya-Deva:** Borbola, Culiembro, Dubros (mendizerra), Bores
- **Sella-Eo:** Borra, Borres (malloa), Bourio, Bornazal, Mouroso, Moreo, Moro, Murias, Burbia, Moia, Bobes, Bobia, Bodes, Balboa, Murias, Burbia, Bounote



b) *BURU-EN-->MEN, PEN

- **Pirin.:** Mente (col de), Pimene (pic de), Lapenne, Alpens
- **Ebro ing.:** Armentia, Mena, Menagarai, Menaza, Mendabia, Mendibil, Menoio
- **E.H.:** Mendata, Pendo...; *izen arruntetan:* mendi, pendiz...
- **Mendebaldea:** Peñamenera, Busmente, Omente, Bimenes, Mendones, Mena (Lugo), La Penilla, Penagos, Pendes, Penbes, Pendueles (Ast), Penouta, Penote, Penerades, Penoselo, Penzol, Pende, Pendones, Pentades

c) BUN/BON; MUN-/MON-, MUNA (*boro-une)

- **E.H.:** Munitiz, Munitibar, Muniketa, Munarriz, Amunaga, Muñozuri, Gabonaga, Mugira
- **Mendebaldea:** Imunia, Munia (Lago de la), Omoño, Muñorrodero, Las Muñecas, Muniellos, Obona, Aboño, Moñanco, Moñeca, Carmoño, Premoño, Camuño, Muñalén, Muñas, Muñera, Muñis, Muño, Muñigo, Lamuño, Almuña, Maramuñiz, Muñón Cimero.

d) BUNT/BONT/BRUNT...; MUNT/MONT (*boro-n-ate)

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• E.H.:<ul style="list-style-type: none">○ Monte (maldan)○ Montorre (MEN, mendi paraj)○ MONTEMORO (gorunean)○ MONTEZURI (ARB, maldan)○ Montolan dorrea (MEN, -203-)○ Montorra (MUX. montorrear)○ Martimonte (mendiko parajea)○ Muntegigana (m) –260- | <ul style="list-style-type: none">• Mendebaldea:<ul style="list-style-type: none">○ MONTE○ MONTANO (err buruan) BU○ MONTEHANO (Treto itsasadarraren alturatxoan)○ monastegia)○ MONTOUTO○ MONTOVO (Pigüeña)○ MONTERI (itsas edo kostako erreka ertz) |
|---|--|

Non da “monte” hitzaren jatorria? Seguruenik iberoan (Liriako ontziko zaldunaren testuan BONAANDITE ageri da:

bona-andite (iber), *bounte* (gr), *monte*, *mons* (lat) = *boroa-andi-ate

Munduate (ald. Aldunate= *alda-une-ate), Brunete, Boronat...= *boro-une-ate

Mendata (*mendi-ate)

Horrela, hizkuntza beraren erroak erabiliz, bi hitz sinonimo sortzen dira: *mendate* eta *monte*. Eta euskararen dialektoak hizkuntza ezberdin bilakatuko dira:

EUSKALGUNE EZBERDINEN ARTEKO BEREIZKETA

Brontze Aroaren hasierarako, duela 5 mila urte gutxi gorabehera, euskara osatuta zegoela esango nuke. Hartu behar zituen ekarpen guztiak bereganatuta, harremanetarako hizkuntza izango zen, geroago latina izan zen bezala. Aipatu garaiz geroztik, kulturgune bakoitza bere bideetatik abiatu eta bereizi ahala, hizkuntza ere bereizten eta ezberdintzen hasi zen.

Pedro Bosch-Gimperak (Prehistoria de Europa) hiru etapa aipatzen ditu askotan, herrien bilakaerari dagokionean: *etapa fluida*, *etapa de coagulación*, *etapa de cristalización*. Nik uste dut hizkuntzek ere hiru etapa horiek dituztela. Hastapenetan, eraiketa fasean, halako jariokortasun bat, sorkuntzaren malgutasuna nahiz auzoko hizkuntzen eraginaren ondorioz; bigarren fasean, kanpoko ekarpen horiek beregatu ahala, hizkuntza sistema finkatuz joango da; eta, azkenez, sistema hori behin betiko finkatuko da bere osagai



funtsezkoetan. Gero, barreiaketa eta desberdintze fasea hasiko da, euskalkiak gero eta ezberdinago bilakatuz.

Adibidez, *urde* eta *txerri* ditugu. Erro berberak, kontzeptu berbera, baina eraiketa eta hitz desberdina. Hona hemen hizkuntza beraren bereizketa adierazten duten hitz zerrenda hauek, adibide gisara:

1. Erro, eraiketa eta kontzeptu berberak: **aitzurra/azada** (*aizto-urra); **koilara/cuchara** (*agolera); **kipula/cebolla** (*ki-buru-aria); **gerezia/cereza** (*gerzi-aria); **orkatz/corzo** (*oin-koroauz)
2. Erro eta irudi berdinak, baina eraiketa desberdina: **harri/roca** (*kar-ira//iro-kar); **karro/orga** (*haga-or//or-haga); **azaburu/berza** (*aza-buru//iber-aza)
3. Erro ezberdinak, baina antzeko kontzeptuak: **buztin/arcilla** (*busti-din//hare-zidina); **amatatu/apagar** (*ama-itaitu//abo-akhatu); **sumendi/volcán** (*sumendi//boro-gar)
4. Erro, eraiketa eta kontzeptu ezberdinak: **zakur/perro** (*zain-or//abel-or); **barraskilo/karakol** (*behe-arras-kila-or//gara-koro); **asto/burro** (*asta-or//buru-or); **igitai/hoz** (*higi-tai//aho-tai).

Erro “ezberdinak”, beti ere, liburu honetan aurkezten jarraituko dugun errepertorio berekoak dira edozein kasutan.

6. SINONIMIA HIRUKOITZA

	Izatasuna	Egintza	Getasuna
Lehenena	<i>IZ</i>	<i>IN</i>	<i>IL</i>
Bigarrena	<i>AR</i> <i>UR</i>	<i>UK</i>	<i>U</i>
Hirugarrena	<i>GO</i>	<i>GI</i>	<i>GE</i>

Oharra: taula hau Bittor Kapanagak proposatutakoa da Erro eta Gara liburuan 1978an

	Hitz	Ele	Berba
Izatasuna	IZ BA-, AHO	AMA/ARA	GO(GO) /GA(RA)
Ekintza	IN/EN/AN DA; UN/ON	ARI/-I; EDUN/-TU- DU	UKAN; eGIN / aGER
Getasuna	IL / I (eri-en) (BA)GA	U / O (un/ul)	GE/KE (ga/ka)
Generoa	AR/EME (?)	AR/EME	OROTS/URRIXA
Espazio ikuspuntua	AUZ/AZU; BURU/BEHE; BOA/BAO; HAO/AHO	TUI/ITU; ANU/INO/LEA	GOI/AGO; ER/UKU; DORRE/ORDO
Handi-txikiak	-TZU/; TXA/TA ASSO/-TO; -TXO	ANU/ALTU -INO	HANDI, TOR/TRO -SKA

Euskarak, nik uste, genetikak bezain argibide onak eman diezazkigukeen sonema arrastoak ditu, nik uste.



Batetik, "i" eta xistu egiten duen hizkera (xistukarien artean, ZI, IZ eta abar). Bestetik, aurrekoaren guztiz kontrakoa, hizkera guturala, goe-gara-uku-egin,... eta, seguruenik horrekin batera, rr hizkera.

Hirugarrenik, hizkera hasperenduna (aho-hao..., eta agian buru-behe-bade). Eta, azkenik, VCV hizkera (ama-ara-edu...).

Hizkuntza beraren erregistroak ala goian ikusi ditugun endak ezberdinen eraginak? Nire ustez, batik bat, endak ezberdinen eraginak. Egin dezagun eztabaida hasteko moduko hipotesi hau: "i" eta xistu, auriñatarren hizkera litzateke; eztarrizko eta erredun hizkera, aldiz, kaukasiar-ibertarrena (batik bat Gravette taldeak ekarria); hizkera hasperenduna, bertoko solutre kulturaren sorkuntza, baita agian buru-behe-bada...; eta VCV, azkenez, glaziazio osteko mediterraniarren ekarpena.

